

Landaburu, 1936ko Gasteizen

Deia, 1983-09-15.

Historia nolabait ukitzea suertatu zaigunok badakigu, gertatutakotik idatziz deskribatutakora alde handia dagoela; ez garela inoiz egia osoa adierazteko gauza, hau ezina delako, eta tarteka ustegabeko zehaztasun-ezaz gainera okerrak ere egiten ditugula.

Gaurkoz Gasteizen *Landaburuk 1936garrengo uztail ilun hartan* izan zuen harreman adierazgarria jakin berria dut, eta historiaren pasadizo hau oraingoz berridazterik ez dudanez, egunkariaz baliatzen naiz.

Neuk 1936garrengo altxamendua gai dela Gasteizen gertatuaz puntu hauek aipatu nituen: 1. Uztailaren *18an* Euzkadi Buru Batzarra bildu zen Donostian, Araba Buru Batzarreko Lehendakari zen Julian Agirre partaide zela; aho batez hartu zen hemen demokraziaren alde eta faszismoaren aurka borrokatzeko erabakia. 2. *18ko gau bertan* abertzale arabarrak Gasteizko errepublikaren egoitzan bildu ziren horiekin, armak noiz-nola jasoko zituzten jakiteko. 3. Gasteizen zeuden lau errejimendutatik bik (zaldizkoa eta artilleriakoa) ez zuten errebelatu nahi, baina zalantza gorri hartan infanteriako koronela zen Alonso Vega-k bultza zituen altxatzera eta *18-19 gauean* gobernadorearena jo eta militarren esanetara jartzera behartu zuten; hurrengo egunean, igandea, militarrek hartuak zituzten hiriburuko puntu nagusiak. 4. Hala ere, une honetako egoera ez zegoen oraindik zearo argiturik, eta Arabako abertzale puntako batzuk, horien artean Julian Agirre, Urkiolara joateko modua izan zuten, hemen Bizkai Buru Batzarreko Ajuriagerra eta Solaunekin hitzegitera; baina egun honetan bertan preso hartu zituzten Gasteizen alderdikide batzu, horien artean Xabier Landaburu, gero, irailaren 24ean libratuko bazituzten ere.

Honi dagokionez, gorde egin zuten gero ihes egiteko bidea lortu zuen arte.

Baina Landaburuz eman nahi genuen gaur jakindako berria. Diputatu ohia, *uztailaren 17an*, *zortzirak inguru* agertu zen *Centro Republicano*-ra Luis Apraiz errepublikanoa lagun zuela; zuzenki *Luis Otaño*-rekin hitz egin zuen, eta honek gaur gogoan duenez, hauxe esan zion Landaburuk: Errepublikaren alde borrokatzeko gertu gaude; 900 gizon zai daude, armak behar ditugu.

Esan dezadan laburki Luis Otaño nor den: Araian jaio eta Gasteizen bizi, aita Otaño musikariaren hiloba; sozialista; hegazkilaria, hau izan zen Bizkaian Eusko Jaurlearitzarekin hegazkinen arduradun.

Bestalde, honek eman dit Yanguas pilotoaren berri (Zarautzko hondartzara Espinosa kontseilariarekin jaitsi zena); bihar emango dut honetaz jakin dudana.